

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea jabari publikoko ondasun baten kalifikazio juridikoa aldatzeari

Udalbatzak, 2016ko maiatzaren 12an egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen aho batez:

Lehenengoa: hasierako onarpena ematea Guardiako (Araba) Sequero aurkintzako 5. poligonoko 410, 1779, 1150 eta 1148 lurzatien artean dagoen jabari publikoko ondasun honen kalifikazio juridikoa aldatzeari.

Bide publikoa, 2.432,35 m²-ko azalera duena.

Bigarrena: horren iragarkia jendaurrean jartzea hilabeteko epean, ALHAOn eta Arabako Lurralde Historikoko egunkari salduenetako batean argitaratuz, egoki jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izateko, Toki erakundeen ondasunen Arautegiaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera; espedientea udal bulegoetan dago aztergai (Plaza Nagusia, 1. Guardia).

Hirugarrena: Hasierako onarpen horren berri ematea Paganoseko Administrazio Batzarrari, jakinaren gainean egon dadin. Laugarrena: jendurreko izapideak irauten duen bitartean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da aipatutako ondasunaren kalifikazio juridikoaren aldaketa.

Guardia, 2016ko abuztuaren 29a

Alkate lehendakaria

J. PEDRO LEON GARCIA DE OLANO